



TALA ZORAGARRIA BERMEO'N

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

BERMEO'KO JAIK

Gure errietako jaiak aspaldion giro indar ta barria artu dabe eta orretarako ez dira izan eragozpen lanik-ezaren larrialdia edo Loapa edo erri-agintaritzaren estu-aldiak.

Orregaitik, udaldi guztiak batez be, giro biziagoa ta atsegingarriagoa artu dau gure errietan.

Antxiñakoa da Bermeo'n giro ori, baiña oraingo egoera onetan bizitasun eta poztasun barria artu dau.

* * *

Jai oneik, batez arrantzale diralako lan-aldi luzeak naiz laburrak itxasoan egiten dabezanentzat azaz-kaldi berezia dira.

Eta, bide batez, urte-barruan ain erreza izaten ez dan gauzea, lanak azpiratzen gaitualako-edo, erri-jakintza, kulturea, egiteko ta artzeko be egun bereziak, izaten dira.

Pozgarria, baita, urtearen lanaldian alkartzeko ainbeste era izaten ez daben gizon askok alkartzeko erea izatea be.

* * *

Orregaitik Udal-Batzak ardura aundia artzen dau jaiak egokiro gertatzeko, ez aurreko egunetan bakarrik, baita urte guztian be: Jai batzuk amaitzen diranean, urrengoak gertatzen asi bear izaten da.

Egitarauaren sarreran Alkate jaunak ezarten dauzan berbetan ondo agertzen dira elburu oneik eta etorri ezin diranak be gogan izateak ondo agertzen dau erriko agintari nagusiaren biotz ona.

Gauza askotarako bear izaten da errietan dirua eta orregaitik neurritz erabilli bear, baiña jaietarako eralketa sendoa egiten dau Udal-Batzak.

* * *

Ba-dira Jaietarako Batzordea osotzen daben laguntzailleak be, naikoa ugari, lan bearrezko onetan laguntzeko.

Banakakoak be bai batzuk, baiña batez be errian diran jolas-eta jakintza Taldeak onetan zeregin aundia ta ederra beteten dabe. Erri-barruan ainbeste diranen arteko txoko batzuk be biotz onez ta errizaletasun aundiaz emoten dabe euren laguntza.

* * *

Jaietarako egitaraua liburu naikoa aundia izaten da eta or agertzen dira, jakiña, jolasen eta ekiñaldien egunak eta orduak, baiña errian diran beste jakingarri asko be.

Baiña erri-jakintzazko lan au egitarauaz bear dan besteko sakontasuna emonda ezin agertu izan dalako eta elburu ori garrantzi aundikoa dalako, Udal-Batzaren Jakintza-Batzordeak beste asmakizun bat izan dau, txalogarria benetan: BERMEO liburua.

Igaz agertu zan lenengo alea eta aurten lester agertzeko da, irakurleak au irakurten dauanerako agertua izango da, bigarren zenbakia.

Au liburu lodia da, lareun orrialde inguru izaten dituana, eta ardura aundiaz eta apaingarri egokiez irarria. Iru sailla izaten dauz: Udalerriari ta itxasoari buruzko gaiak eta komunikapenak. Idaz-lan sakonak eta irakurgarriak geienak.

Urtero olako liburua, edo aldizkaria, agertu ezkeru, liburutegietan eta etxeetan izango da erriaren jakingarriak aurkitzeko aukerea, erria barrutik ezagutzeko bidea.

* * *

Bermeo'ko jaiak irailaren zortzian, aurreko egunaren eguerditik asten dira, Almike'ko Andra Mari ospatuaz eta Eupeme Deunaren jaiaz amaitu.

Jai zoriontsuak opa dautseguz Bermeo'tar guztiai.

AZKEN ,AGIRIA

Amaren altzoetan ikasten dogun berbetea ei da, luzaro uaztu eta menperatuta euki arren, eriotzako orduan, gizonok erabilten doguna. Urrunago joko neuke nik. Eriotzako ordua, gizonontzat, bizitzan zear egin ditugun gauza garrantzitsuenen bateratze edo laburpen bat egiteko unerik egokie-na da.

Beñola, Mendipe izeneko erri-txu baten nengoala, diñodan au egiztatzen dauan idazti bat aurkitu neban, erri aretan egoan, antziña jauntxoan sendi batena izan zan etxe andi ondamentitutako baten. Bakoitzak, egillearen bizitzan bere alkarrekikoa daukan, iru solasgai nagusi bereiztuko neukez nik idazti onetan: Berbetea, mamiña eta estiloa.

Berbetea, bere gazte aroan amagandik ikasitako, bere burua euskal erara moldatu eban euske-rea darabillalako. Mamiña, mundu onetan egin ebazan egunetan, ain sakon bizi eban kristau siñis mena gaitzat artzen daualako eta estiloa, bere ogibidearen eragiñez (Notarioa zan) idaztiari, latiñezko esaldiekaz jositako forma bat emoten dautsalako. Geiago barik, ona emen idaztia:*

Mendipeko errian, 1930.urteko Garagarrillaren 12an.

«Ad patres»joateko or, or nagoan, Bilboko notarioen batzar ooretsuan kidekotutako Egidazu'tar Kepa nazararen aurrean, ONEXEK DAGOZ:

Txarkeri eta batirako galtzearen ordezkartzat datorren Luziferren lengusua alde baten, eta salbamenaren ontasunen barri ekarri oi dauskun, zerutik jatsitako Luzio izeneko aingeru bat bestean. Artez dagoz bien ordezkartzagiriak eta gauza dira, nere ustez, goiko legeak eskatzen dauan bes-

* Oarra:Sabinen idatz arauetara egon zan idatzita testu au. Neuk gaurkotu dot, obeto ulertu dapizuen.

te, nere eriotza osteko egoeratzaz, nai dabezan eragabiak artu edo nai daben legez itunduteko.

Itaun erantzunez betetutako alkarizketa labur bat egin ondoren, ZERA DIÑOE:

LEENENGO: Argi dagola, batzar onetako egoerea ikusirik, «consensus omnium» batera eltze-ko eziña, orregaitik, era onetan «per saecula saeculorum» ezin egon gaitekenez, geiago ez ba da be, «concordia discors»batera, «hic et hunc» eltze-ko aalegiñak egingo direla, «ad Kalendas Graecas» itzi barik, ez dala iñor «ad Augustas per Augustas» ona etorri eta.

BIGARREN: «Ab origine»ibilli dirala nere arimearen jabetza lortzearen atzetik, eta Luzio izan arren, gaurkoz, nork geiago orretan irabazten doana, ez dagola ondiño, niganako «dominium» klarurik, au da, «res nullius» nazala oraindik.

IRUGARREN:«Res nullius» izan arren, bidezkoa dala Luzioren merituak ikusirik, bere aldeko «presuntio iuris tantum» bat ipintea, au da, nere bizitzan zear, benetako txarkeri sakonetan sartu nazala egiztatzen ez dan bitartena, Luzioperako izango nazala, berak, niganako daukazan asmoak betetzen.

LAUGARREN: Beste parteari be, joan dan zenbakian Luzioren alde ipiñi dan obariaren orde, bere alde lan egiteko erea itzi bear jakola, orregaitik, «in articulo mortis» nagoanez, eta egoera au, neure «loco dolendi» danez, bizitzako azken uneotan, nigaz, berak gura dauan legez jokatzeko eskubidea emongo jakola Luziferren lengusuari.

BOSTGARREN: Laugarren puntuko eskubia, artez artez eroan bear-ko dala aurrera, edoze-lako «dolo» okerren bat usaindu he egin barik.

SEIGARREN: «Conditio sine qua non» izango dala agiri au edo biki bat erakustea, idazti onetan jartzen diran eskubideak, aurrera oroan aal izateko.

ZA ZPIGARREN: Idazti onetan jarritako guztia, lege biurtzen dala alderdi bientzat, goiko baldintzak betetu ezkerro, eta ez dala...

Emen amaitzen da idaztia. Luzeagoa izan zan asiera baten, baña leen aipatu dodan etxea ondamentitu aban suak, erre ebazan amendik aurrera egozan le-erroak (orriak?). Idaztia egindako aldietan, egillearen neskamea izan zan atsotxuak, auxe erantzun eustan gai onetzaz itaundu neutsanean: «Ustekaben arrapatu eban eriotzeak, eskutitz ori idazten egoala. Ez dakit zer jazo jakon, baña egun aretan, aldarrika asi zan onelako gauzak esaten: Itzi egidazue baketan! ni, neu naz, eta, neuk aurkitu bear dot nere bidea!!!...Itzi egidazue!!! Zuok ez zaree iñor nire ganetik, nere geroatzaz erabakitzeko eta... Zoaze!!! Ez dot gura il eta... Zoaze!!! Berbok iñoazala zarata siku bat entzun neban gela barruan, eta bapatean, amaitu ziran aldarriak. A tea ireki eta barrura sartu nintzanean, orrion ganean etzuna egoan gorpu bat baño ez zan notario jauna. Ez egoan bezte iñor gela barruan».

Gero, bere illobiaren aurrean, atxuridin zati baten, idatzita egozan esaldi bi onek «LXX anno aetatis suae» eta «Requiescat in pace» irakurten nengoala auxe bururatu jatan: Neskameak entzundako aldarriak, motu propio ala laugarren puntuan jarri zanari jarraituz, Luziferren lengusuaren eragiñez esanak izango ete ziran? Ez jat atsegin au esan bearra baña... IGNORABIMUS!!!
JOSU IÑAKI ERKOREKA

II ZARO

Maiatzeko «ZER»ek azaldu euskunez, mendez mende. ainbat errik izan dabe, «Malbinas», «Falkland» edo dana dalako izendun ugarte-talde orreïn jabe izateko «edestiaren errazoa».

Malbinak, Bizkai'ko Kolko'an daukagun Izaro txikia gogorazoten dauskue.

«Edestiaren errazoirik» izan ete eban Drake itsas-lapurrak, 1956'an here 14 ontzigaz etorrita, Izaro'ra sarturik komentua erreta «bereak» egin ebazanean?...

Itsas-ertzean, Izaro'ri begira, Bermeo, Mundaka ta Elantxobe. Odol-isurtze ta indarkeri barik, ugartetxo orren jabetza ebatzi eben iru uriok. Gizabidez egindako konponketa onen barria eta orain, Madalena egunean urtero, jazokizun aundi ori, zelan gogoratu ta ospatzen daben, «IZARO»k edestuko dausku.

Aintziñakoek diñoenez, Mundakarrak esaten ei eben, Izaro ugarteia euren zala; eta Bermeotarrak Bermeorena. Orduan, alkarregaz estropadak egitea erabagi ei eben: bakotxa bere erritik txalupan urtenda, bertara lenengo eltzen zan erriarentzat izango zala.

Bermeoko kariatik txalupak urten ebenean, txistularik abesti au jotzen asi ei ziran, baiña astiro astiro:

«Maria Madalenia
zeugana nator belaunbiko
Maria Madalenia
zeugana nator belaunbiko
belaunbiko jarri bagarik
iru Meza entzuteko.

Bermeoko eta Mundadako txalupak bardin joiazanean, txistulariek «larriturik korriyen», ariñekeit, lasterka, jotzen asi ziran txistua: Fi, Fi, Fi, Fi, Fi, Fi, Fi...

Eta Bermeokoak, ostera aurreratu ziranean, txistulariek astiro jarraitzen eben euren txistua jotzen eta erriak abesten:

«Izaro islian
Madalena egunian
erromeri egiten da
urtian urtian
txalupakin gaztedia
Ayuntamiento Jaunari
estropadan laguntzeko
eta jiran gero etorri.»

Izarora eltzen egozanean, oster, txistulariok bizkortu egin eben euren doiñua. Eta olantxe, Bermeotarrak eldu ziran lenengo Izarora; eurek irabazi eben estropadea eta Izaro, Bermeokoa da, Bermeorena: izkillu indar barik irabazitako garaipena!

Orain, urtero, Uztaillaren 22 an, bermeotarrak aundikiro, jai aundi bat egiñaz ospatzen dabe beñolako egun zoriontsu ori:

Itxasontzietan urtetzen dabe itxasora; Izaro'ri bira emoten dautsoe eta alkateak, Izaro'tik teilla bat jaur-

titen dau. Onek, auxe esan gura dau: Bermeoko etxe-teillatuak eta Izaro alkartuta dagozala. Izaro, Bermeo dala.

Udal- Uri-Batzarra, itxasontzi baten joaten da, eta eurekaz doazan beste itxasontziek, birak emoten deutsez ugarteari: bira bakoitzeko, onen beste ardao emoten deutse.

Bazkaltzeko, Elantxobera joaten dira: Elantxobe izan zalako, Izaroren jabetza lortu-guran, Bermeo ta Mundakagaz batera estropadan egin eban irugarren erria. Ango alkate jaunak, bere makillea Bermeoko alkateari emoten deutso: bazkari ederra jaten dabe, auresku andiak egin eta arratsaldean, Mundaka'rantza joaten dira eta azkenez, Bermeo'ra.

Ara eltzen diranean, portuan santzo eta dantza asko izaten dira. Eta orrelantxe, umore onagaz Bermeo'ko udaletxera eltzen dira.

Madalena jaia, oso jai ederra Bermeotarrentzat. Eta eurekaz batera, Mundakar eta Elantxobetarrak, euren biotz-zabaltasun eta jatortasunez, errien arteko autuak, borondate onez eta alkarrizketan, zelan konpondu erakusten dauskue.

Izaro



Bermeo'ko lala'tik ikuspegi zoragarria dago. Itxas-Barruan
IZARO.

EUSKALTZAINDIA TA EUSKERAZANTZA

Aspaldiko euskaltzale garean guztiok dakigu, euskereak artu izan dituan bide okerreri ertzak artu bearrean, adorea emon izan dautsona, Euskaltzaindiak.

Ba-neban gogoa ta itxaroten nengoan, egon be, euskerearen batasunerako zeintzuk aditzojoko erabili noz agertuko ete-zituan, Euskaltzaindiak, baiña muker geratu izan nintzan Bizkaiko euskaltitik zara ta nintzateke baiño besterik etzituela artu ikusi izan nebanean. Zera esan naiz zara esan euskereak ez dau galdu ez irabazi ezertxu be egiten eta nintzateke gitxi be gitxi entzun izan dot, gure errietan; Nintzake bai, ostera. Euskalki guztietan ez ete-doguz, ba, euskera osoturako egoki daitekezan aditzak? Ala, baztergarri ete-dogu, bai bizkaieraz eta bai gipuzkeraz, orainarte egin izan dar elederra?

Euskerearen batasunerako, gipuzkera osoturako, lenengo urratsak, urratsik zaillenak, eginda geunkazan. Alan idatzi izan eben, ba, gure idazle ta itzultzaillerik onenak: Orixe'k, Andima'k, Zaitegi'k, Olabide'k, Etxaide'k eta abarrek, naiz-ta, oker ez ba-nago, Bergara'ko Batzarrean, Mitxelana'k 'Azkuek'k berak baiño ez ebalá Gipuzkera osotuan idatzi esan. Eta Euskaltzaindiak *ari*, bide ari, jarraitu izan ba-leutso jarraitu, beste egoera baten gendukean, euskerea, egun.

Eta, oneik olan direala, ze esku-bide dauko, Euskaltzaindi orrek, lorrinzen laga dauan lez euskerea lorrinzen isteko? Euskaldun jaio, euskaldun asi ta beti euskaldun bizi izan *gareanona* ez al da, ba, euskerea euskaldun barri ta mor-doillu zale batzuk lorrindu, zapuztu ta ondatzeko? Baiña, goazan zustraira Idauan urteotan dedocracia ibilli izan da Euskaltzaindian.

Guztiok dakigun talde bat, h ikurrintzat arturik, erakunde edo dana dalako orretan euren laguntxuak sartzen alegindu izan dana, naiz-ta euskera-gaizto baiño ez daki-enak izan; eta, au tamalgarrial talde onegaz alkarturik abertzale bat edo beste bere bai; eta Arantzazu'ko praille andana bat, elizgizonakaz alkartu ezin leitekezan gogaiaik dituenai jokoia egiñik, dira euskerea lorrindu, zikindu apurtu ta ondatzen diarduenak. Eta bestaldekoak ez dabe izan adorerili dedocrata orrei agiñak erakusteko.

Areik, lorrinzaleak, lengo urteetan, zenbat gura euskaltzain aukuratu izan dituezan bitartean, besteak ez dabe bekokirik izan, urrean, benetako euskaltzale abertzaleak euren arteratzeko.

Eta, gero, Euskaltzaindiaren beraren barruan ango okerkerieri aurpegi-emoteko adorerik izan ez daben euskaltzain batzuk, euskerearen jabe bakar eurak direala uste dauan taldea itxirik, Euskera-zaintza sortu izan dabe. Erakunde baten okerrak goiak artu-guraz diarduenean gogaitu-ta iges-egin eta beste baskuna bat sortzea koldarkeria deritxat.

Bertan iraun bear da agertu daitekean burrukeari aurpegi-emonaz: Gogor jokatu ta okerreriarik egiten ez itxi, Benetako euskerea maite daben euskaltzainiak au egin izan ba'lebe, beste egoera baten gendukezan, orain, euskerea ta Euskaltzaindia.

Euskerea ustegoz (teoriz) baiño gogoko ez dakioenak baztertu ta egiazko demokraziaz eratu bearrean dago, ba, Euskaltzaindia: Erri-zale egiazkoak eta abertzale benetakoak bear ditugu, ba, gure izkuntzea aurrera aterateko.

Euskaldun jatorrak ezin jarrai geinkeo, beintzat el batua amesetako erdal-euskera lorrin baizen

ezein orri, Nik, neuk, ez negio jaramonik egin, beintzat, euskera-gaizto orri ertzak artzeko gei ez dan Euskaltzaidiari; eta gitxiago Real Academia-ri naiz-ta milloiak baturik izan euren euskera mota kaltegarri ori, eurak nai dabenez, nausikiro, indarrez, guztieri ezarri gura izateko.

Euskalsena daben idazle onak bakarrik, asi izan ba'lira batasunerako euskera ori idazten, gipuzkera osotuagandik alde andirik ez eukakean eta gaitz-erdi gendukean; baiña euskera-gaizto egiten daben sasi-idazleak lorrindu dabe guztia ta izkelgi ganora bagako bat sortu baiño besterik ez dabe egin izan: Euskera batua egin bearrean, euskera ondatua egin izan dabe.

Biziteko indarrik izango ez dauan eta erriak egundo be ontzat artungo ez dauan laboratorio-ko euskalki nardagarri baizen arbuigarria. Eta, Euskaltzaindiak dau onen errua. Obeto esan da, Real Academia-k; ganorabako idazkera lorriña galazo bearrean, araxe bultzatu dauz, ba, berari ooben dagitsenak.

Gure izkuntzea ez dabe indarbarrituko atzerritik ager daitekezan euskaltzaleen itzaldiaik, ez diru-batzeko egiten diran, eta euskereagaitik asko ardura ez dautsen gizostea batu daroen, jai-aldi ta korrikak, ez ikastolak, ez Euskaltzaindiak, ez Euskarazaintzak ez ezek, bene-benetako abertzale-tasunak baiño. Euskerea ez dala, euskal-gogoa be galdu egin yaku eta bentako abertzale-tasunak baiño ezin daikez iratarri ta zuzper-tu losorroan dirauen euzkoen gogoak Zigur izan!

Aurre-Apraz'tar Balendin

Ipar Amerika'tik Euskadi'ra begira

LIBURU BIKAIN BAT

Latiegi'tar Bixente eta Oñatibia'tar Duxi'ri: Agur; artu det zuen liburu zoragarria, benetan ederra. X.X.'ek ekarri dit. Beste sei ale geiago eman dizkit, eta agindu bezala bidali ditut, agindutako tokietara.

Ori dana eginda, zuengana natorkizue. Batez ere, zuen liburu eder ori («EUSKAL-TZAINDIARI EPAIKETA») eskertu nai nizueke. Mesede ederra egiten diozue Euskalerriari eta Euskerari. Guzia argi azaltzen dezute, eta baita berri asko ematen ere. H'tarren jokua garbi agertzen da zuen liburu ortan: erriari euskal-arnas jatorra kendu nai diotela. Ortarako, arrotz-giroa sortzen saiatzen dira. Orrekin, erriari anima ta atsa aldatzen dizkiote. H'a aitzaki bat dala garbi agertzen dezute. Euskalerriari begiak irikitzen dizkiozute. Erne dagonak argi beza begia.

Izkera berriz, erriarena darabilkizute, zartarkeririk gabea. Zuen eskua nolakoa dan idatziaz, idazkeran, agertzen dezute. Zuen erantzunik jatorrena, zuen euskera errikoa, argia, garbia, eta aberatsa da. Geroak aztertuko ditu batzuen eta besteen lanak. Erantzunik jatorrena, nere ustez, ori da: idatzi, idatzi, eta ondo idatzi.

Naiko esku garbiak geroko gizaldietan ere izango dira gaurko emaitza jatorren aberastasuna jasotzeko.

Nik ez nuke esango zuen liburuarekin os-tiko bat ematen dezutenik, mesede ederra egiten dezutela baizik. Linguistika, izkuntza, aberastutzen dezute; baita edestia eta euskal

Zuen liburu ori gabe, EGIA lurpean geldituko litzake, eta belar txarra bakarrik ikusiko genuke.

Ezin det ixildu, nere iritziz, utsume zabala ikusten detela liburu ortan: Bergara'ko goraberak ez dituzute aipatzen. Benetan mingarria!

Antxe ibilli ziñaten argia zabaltzen. Eta, zuen jokaera guztiz aipagarria izan zan. Zuen esanerantzun aiek ez dira ixiltzeko. Gutxiago..., aztutzeko. Antxen ikusten zan nolako gizonak diran Mitxelena, San Martin, Billasante eta abar. Izkuntza zan alkarizketaren gaia, baiña izkuntzaren atzetik euskal nolakoa dan agertzen zan. Gai aiek euskal-jakintza altxatzeko bearrezkoak ditugu. Zuen liburuaren bigarren agertaldian erantsi, arren, an gertatutakoa, ezer aztu gabe. Bestela, gure erriaren edestian ezeren az-tarnik ez zaigu geldituko. Dana dala, zuen liburu ederragaitik zorionak eta eskerrik asko. New York'etik agur bero bat biori.

Jose Mari San Sebastian
«LATXAGA»

OARRA.—Ameriketatik iritxi zaidan eskutitz au egillearen baimenik gabe argitaratzen dut. Badot ortarako, adiskidetasunak emanda, eskubide betea. *Latiegi'tar Bixente*.

CUBA BARRUTIK (XV)

Politikatik kanpo ba dira beste arazo batzuk be Cuban. Adibidez, gazteen bizikera, izakera, jolasbi-deak, eta abar.

An, egia esan, bertako politikaren eragin bako arlorik ez dago. Gaurko gaztediaren izakera bera orren eragiñez beterik dago. Dana dala, gaurkoz politika arloa geien bat aitatu barik itziko dogu.

CUBAKO GAZTEAK

Cuba'ko gaztedia naiko alaia eta doñuzalea da. Beraz, dantzaztea eta dantzazalea izatea be bere-berea dau. Irabazi ez dabe askorik irabazten. Baiña geroaren begira be ez dagoz: irabazten dabena aalik eta ondoen gastatzen aalegintzen dira, adibidez «gau-

txorietan». Oneitan, ondo igaroz gaiñera, txurrutada batzuk be egiten dabez, eta kontutan artzekoa da, aren etxeetan ezin dabena «gau-toxorietan» edaten dabe eta.

Jazkera aldetik ez dabe arrokeri aundirik. Gastediaren ametsetariko bat praka «vaqueroak» janztea izaten da Onez gaiñera, tenisera-ko oski batzuk eskuratu ezker, zoriontsu be zoriontsu dira.

AMETS BEREZI BATZUK

Cuba'ko gaztediaren artean amets aundirik be ez izaten: geienak etxe-bizitza eroso baten jaube izatea dabe euren ametsa. Jakiña, ez da bat be erreza an. Onez gaiñera, Cuba'ko gaztediaren egunero guraria zerbait geiago jan eta txurrutada batzuk egitea da.

Ba dira salbuespen batzuk, adibidez, Cuba'tik alde egitea pentsatzen dagozanak. Baiña oneik gixienengoak dira, andik alde egitea egon be gatx dago eta,

LANERAKO GOGOTSUAK?

Jakiña, au be ez. Zertarako ale-
gindu, ostean eralgiteko dirurik be ezin badabe lortu? Auxe da, azken baten, gaztedi aren itauna. Beraz Cuba'ko gaztediaren alperkiak ba dau bere azalpena be: saririk ez badago, Ian egitea alperrikakoa da.

Baiña, bestalde, beste au be esan bearra dago: alperkeria alperkeri, oso bakezaleak, begikoak eta eziak dira.

PIRU LEGARRETA

— *Ona emen Kerexeta gure idazle ugari ta jatorraren beste liburu bat.*

— *Nork ez daki abadeak geroago ta urriago dagozala eta toki guztietara ezin dirala eldu?*

Liburu onetan, igandeetan eta jai-egunetan abaderik ez daukenak eleizkizunak egiteko erea dator. Eta jakiña, beste egun batzutan be nai izan ezker egin leikez. Orra or laikoen aurrerapena eleizan lortzeko bide bat.

— *Aurreragoko ZER'en, 55 zn. 'dunean, agertu genduan beste liburu bat, onen anaia, ELEIZEAREN OTOITZA, au be Kerexeta'k euskeratua.*

— *Liburu onein salneurria, abadeari eskatu ezker 250 pezeta da, bakoitxarena, eta liburu-dendetan 325 pezeta.*

DOMEKA
ETA
JAIEGUNETAKO
OSPAKIZUNAK
ABADE BAGARIK



"EUSKALDUN BERRI" BATEGAZ ALKARRIZKETAN

Astebete dala, alkarrizketa interesgarri bat izan neban euskera «batua» ikasi dauan andrazko bategaz. Ez zan nire errikoa. Eskuzorroan «Euskal-irakasle Agiria» eroian. Erantzunik geienak erderaz esan ebazan, eta nik bizkaieraz jarriko dodaz nire euskerea bizkaiera da-ta.

Nik.—Euskal-irakaslea izateko, euskeraz oso ondo jakingo dozu, ez?

Arek.—Bueno, baiña euskera «batua». («El batua» esaten eban arek, «el batua» gora ta beera).

Nik.—Nogaz egiten dozu berba, ba, euskera «batu» orretan?

Arek.—Zer da *berba* ta *nogaz*?

Nik.—Berba egin, itz egin da, eta nogaz, norekin.

Arek.—A!, norekin mintzatzen nazan euskaraz?

Nik.—Orixe.

Arek.—Iñogaz be ez, erri onetan iñok ez dan euskera batuz egiten-eta.

Nik.—Beraz, zetarako dozu, ba, euskera «batu» ori?

Arek.—Ba... jakiteko ta irakurteko ta irakasteko ta... dirua irabazteko.

Nik.—Beraz, zuretzat euskerea berbete il biurtzen da: ikas-gelan izan ezik, iñogaz berba egiteko ez dautsu balio-ta.

Arek.—Gipuzkoa'ra joan naitenerako balio izango daust, baita Prantzi-alderako be.

Nik.—Bai zera, neska! Gipuzkoa'n gipuzkeraz egiten dabe berba, eta Lapurdi'n lapurdieraz.

Arek.—Ori orrela ba'da, argi dago —«bistan dago» esan eustan berak, euskera batuz— «el batua»k iñogaz berba egiteko balio ez daustana.

Nik.—Norabaiterako balio izango dautsu, bearbada: Bilbo'ra-edo joan bear izango dozu, eta an, «Diogenes'en linternaz», laboratorioko sasi-euskera ori ikasi dauan zu lako beste norbait billatu, «transitiboz naiz intransitiboz, singularrez naiz pluralrez», alkarri milla bidar *dut* eta *duE* esateko.

Arek.—Esque... «el batua» ikasten ez ba'da, euskerea galdu egingo dala diñoskue.

Nik.—Baiña, ez daustazu esan, ba, euskera batuaz iñogaz be ezin daikezula itz egin? Euskera «batu» orren bidez jazoko dana —eta gaur egunean jazoten dana— auxe da: «batu» orrek erri-euskerea il egingo dauala zearo, eta bizkaiera bagarik eta «el batua» bagarik geratuko garea.

Arek.—Neuk be, batzuetan, orixe uste izaten dot: X X'ko ikastolara doazan umeak ikas-gelan egiten dabe, bai, euskeraz; baiña kalean doazanean, euskeraz berba egiten ez daustez iñoiz be entzuten, eta ori «el batua» goiz ta arratsalde irakasten daustegula.

Nik.—Zuk baiña askoz obeto dakit nik kalean zer egiten daben berba, neure etxe-aurretik igaroten dira ikastolara ta euren etxetara-ta. Baiña euren gurasoak esanda be badakit: ikastolara joaten asi ziranetik, ez ei'dabe etxean euskeraz egin nai, ez ei'dabe alkar ulertzen-eta; orregaitik —izkuntzak alkar ulertzeko dira, ondo dakizunez—, errazago egiten yakela erderaz egitea, bi eratako euskerea gaxtegi egiten yakela-ta.

Arek.—Bai, neuk be orixe uste dot: euskera-era bi alkarregaz burrukan... ez bata, ez bestea, ez dirala bizirik geratuko.

Nik.—Ba'al-dakizu zer esan euskun oraintsu irakasle (maisu) batek patatasolo baten baiña kalte geiago egin dautsala «el batua»k Bizka'i'ko euskereari.

Arek.—zQue significa *barri*? —itandu eustan arek. Eta nik:

—Zuek *zerri* esaten dozuena. Baiña alperrik esango dozu *zerri* Bizkaia'n, iñok ez dautsu ulertuko-ta, erderazko *estera* adierazko izan ezik.

Arek.—Bai; sarritan pentsatzen eta esaten dot, berba egiteko balio ez daustan «el batua» au ikasten ainbeste ordu zegaitik eta zetarako galdu dodazan...

Nik.—Jakiña, ba! Zuk egin bear dozuna, auxe da: bizkaiera ikasi eta erritarrakaz berba egin, Bizkaia'n bizi zara-ta. Emengoak be Ingalterra'ra ta Prantzia'ra joaten dira, inglesa ta prantzesana angore erritarrakaz obeto ikasteko ta berba egiten zebatzeko. Ala, zer uste dozu zuk? Euskaldunok apartekoak garea eta beste guztiak egiten dabena guk okerretara egin bear dogula?

Arek.—Parkatu, ez dautsu ondo ulertu: zer da *zebalzko*?

Nik.—Erderazko «a soltarse, a adquirir soltura». Bizkaiera ikasi, ba, leenen; eta gero, gipuzkera be bai. Bi euskalkiok jakin ezkerona,naikoa dozu Euzkadi'ko euskaldunik geien-geienakaz ondo ulertzeko. Eta ba-dakizu: *izkuntza bizia* erriak berba egiten dauana da, eta ez liburutant soillik geratzen dana. Zer balio dau urtean milla liburu argitaratzeak, liburu orreitako euskerea —iñon berba egiten ez dan euskerea, «el batua»— jaiotez illa ba'da? Munduko izkuntzarik ederrena, dotoreena, bikaiñena ta polite-na lez geratuarren be, gorpu izango litzake.

Arek.—Gaiñera, orain «el batua» H soifeko apain eta barrizuz jantzita dator.

(Bomba H!).

Nik.—Bai, oso polito, oso polito! Baiña, alan be, zuk ba-dakizu erderazko arako a: «La mona, aunque se vista de seda, mona se queda», Ramona. Eta, sedazko H'z jositagertuarren be, «el batua»k gorpu iraungo dau, *esperanto* entzutetsuak lez.

Arek.—Zer da *gorpu*?

Nik.—Erderazko *cadaver*. Eta iñok ez dau nai izaten gorpurik kalean, ez etxean. Ez dagiala euskera biziak illobirako biderik artu!

Arek.—Ba'al-dago, gero, bizkaierazko gramatkarik?

Nik.—Bai, andratxoa, bai; ez dira egongo, ba? Or dozuz Villegas'en *Nire biotza*, edo Xabier Peña'ren *Euskal laburra*. Baita gipuzkerazkoak be; esate batarako, Yon Oñatibia'ren *Erriaren euskera batua*, Uman-di'ren *Gramática Vasca...* Eskatu egizuz Bilbo'ko liburutendetan.

Alkarri agur egitean, nire erriko ikastolako mutikoneskatoak —txikitan euskaldun utsak ziranak— bidean urrera erderaz berbetan yoiazan, beste egun guztietan lez...

ANBOTO

AUÑAMENDI'KO LOREA

(Tx. AGIRRE)

Euskal-Elertian daukagun eleberrigillerik onena, Txomin Agirre dala diñoanak, ez dot uste uts aundirik egiten dauanik. Eta Txomin Agirre'ren iru eleberri amaituak, maillarik maillara, ontasunean urrengorik urrengora, nik oneik ipiñiko neukez: Garoa, Kresala, Auñamendiko Lorea.

Egin dagiogun ba, eleberri oneri azterpen antzeko bat.

* * *

KONDAIRA - ELEBERRIA

Idazle erromantikuak zaletasun berezia euken erdiaroko kondairea eleberrietara sartzen eta euren berezitasunetariko bat dogu kondairazko eleberria.

Saille orretan sartzen da ezelako zalantza barik Txomin Agirre'ren eleberri au. Bere lenengo eleberria da izan be eta beste biak idaz-tankera barrian «realismo»aren tankeraz idatziko dauz. Elertiaren jokabide onein bitartekoa dogu gura Txomin, erromantikuen eta realisten jokabidearen erdikoa. 1898'an agertu zan Auñamendiko Lorea eta ordurako erromantikuen aldia igarota egoan, baiña jokabide oneik beti eltzen dira Euskalerrri pizka bat beranduago.

Beste ikuspegi batetik begituta, irakaspenezko eleberria dogu eta eleberri katolikua: Oiñarrian enda guztietako gizonen alkar-maitasuna irakatsi nai dau, eta irakatsi au be bearrezkoa dogu aldi guztietako euskaldunak.

* * *

AMAYA'REN ANTZA

Txomin Agirre'k eleberri au idatzi baiño iru urte lenago il zan Biana'ko semea zan Nabarro Billoslada, *Amaya* eleberriaren idazlea.

Eleberri bi oneik dauken alkarregazko zerekusia ikusteko ez da bear argitasun berezirik: Tankera bat, elburu bat, irakatsi bat, trebebidet bat... AMAYA'k Godoen eta euskaldunen arteko artu-emonak agertzen dauz, *Auñamendiko Lorea*'k osterata orixe berori Franko'en eta Euskaldunen artean iparraldean.

Txomin'ek oar baten gogoratu be egiten dau «Amaya»ren idazlea, bera baiño idazle obetzat artzen dauala.

* * *



AUÑAMENDI'KO LOREA

LA FLOR DEL PIRINEO

tomo 1

DOMINGO AGIRRE

COLECCION AUÑAMENDI

IDAZLEA LIBURUAN

Eleberrietan idazleak sarritan artzen dau edeslari bat, bere burua larregi agertu barik esan gura dauana esateko.

Ez olakorik Txomin'ek: Zuzen-zuzen egiten dautso berba irakurleari eta ori gaurko irakurleentzat arrigarri gertatzen da. Bear ba'da bere aldiko jokerea izango zan.

* * *

ALDIA

Eleberria kondairazkoa izanik, aria aldiaren bidetik joatea ez da arritzeko gauzea. Aldiaren asiarea ta amaia zezat ebagi barik baiña kondairazko ego-era baten asten da eta bardin amaitu.

Aldiaren bidean iñoz atzerakadaren bat egiten da, esaterako: «...done Benitotarren bapilde batean sartu zan. Baiña an sartu baiño lenago Riktrudisi igaroko gauza bat emen esatea ondo etorriko da» (Col. Auñamendi II, 176).

Onetan be ba-ditu ba Txomin'ek bide barrien asiera batzuk.

* * *

TOKIA

Toki-arloan ez dauka eleberriak naste aundirik. Mendiola etxea, Ozinbeltz etxea eta Ostrabenton'en «Erbeste» etxea dira iru tokirik garrantzitsuenak.

Besteaak albo-toki gertatzen dira.

* * *

NORKIAK

Eleberri onetan Txomin'en besteetan baiño norki gitxiago dagoz eta norkien zeazketak be ez dira argazki lez edo topeia lez, egiten eleberriaren ibillian agertzen da egokiro bakoitza zelakoa da.

Len-norkia edo protagonista, Riktrudis dogu, benetako kristiñaua ta euskalduna baiña erritarren aldetik ge-roago ta gitxiago onartzen da bere jokabidea frankoak anai lez artzen dauzalako.

Amando Gotzain santua, Ubero ta Gaispar, kristiñauak baiña sarritan tentaldian, Arnaldo ta Luzia Mendiolako Jaun-andreak (aita ta ama) eta onein etxean Pedro Mari otsein zintzoa ta Lope otsein saltzaillea; Padar koplalaria eta kristiñau zintzoa; Riktrudis'en ezker-alde-tik Portun maitemindua ta siniste bakoia baiña azkenean

biurtzeko, euskalduna; eta ezkoialdetik Aldabaldo godotar santua eta Riktrudis'en senarra.

Senar emaste oneik lau seme-alaba daukez: Mauronto, Koltsenda, Eusebia ta Adalsenda. Urrin baten II - Klobis erregea.

EUSKERA

Txomin Agirre'gan joskerako utsak zuzenduz doaz bere bizitzan, baiña eleberri onetan oraindiño ba-dira batzuk: «Arturik bere jarlekua...» 28 orr., «esan dauskuzu, zure ustez, muturketa bategaitik...» 46 orr.; «ona izango da irakurleari esatea...» 114 orr.; ikusi ebanean len bere-tzako ziran... II, 128 orr.

Aditza erabilkeran be noizean bein gauza arrigarrriak agertzen dira, *zu* askorenean erabiltea alde batera dala: «Orixe da ni geien geien berotu *nituan*» I, 90 orr.

Iztegiari begiratu ezker, Tximin'ek emen darabil-tzan itz batzuk gaur baztertuta geratu diralako, arrigari biurtzen jakuz. Berak Larramendi'ren iztegitik artuak dira, oin-oarretan diñoanez: Onoidade / vitud, betzigo / injuria; kurruka / venganza; beregandeko / tranquilo; doskaiña / sacrificio; lotoskindea / poesia; bapilde convento.

* * *

AZKUE'REN ERITXIA

«Irakurgai onen azaldariak, Agirre abadeak, auxe baiño beste euskerazko lanik egin ezpaleu bere, Auñamendi'ko Lora Riktrudis'ek euskalzalerik errimeenak eta geienak bizi diran tokira goratuko leuke bere izena. Onetariko lan asko baleukaz gure euskera ederrak, urte gitxi barru burua jaso al izango leuke» (In S. ONAINDIA III 63).

Orra or sei bat orduan irakurteko lako eleberri atsegin garri bat.

ADABALDO'REN ERIOTZEA (11,170)

«Aldabaldo'k azkenengo itzak etzituan ondo amaitu». Bera da! Bera da! Dukea! Prankotarra! Kristiñaua! Lapurra! Gure alaben ostutzaillea!» Oneek eta beste olango estarri askotatik batera urtendako oiut ta deadarrak entzun ziran trumoi garratz, gogor da ikaragarri baten antzera inpernuko gaizkiñ zarrak arima bat galtzean egingo dituen garraxiren irudira, ta Aldabaldoren gorputza inguru guztietatik iaurtiriko gezi ta geiagok iosi-iosi eginda itxi eben. Aldabaldo errukarrizko «Jesus» bat esanda zalditik bera iausi zaneko, gaiñean eban Portun, begi bietatik otsoen txingarrezko begiradea boteaz, aotik amorroaren bitza ta lerdea eriola. Dukea ordurako ondo ilda egoan, baiña ondo ill bagako aberea eiztariak amaituten deben legez, Portunek aizkorakada batean Dukeari burua erdibitu utsan da «Beiñ edo beiñ tximista orrek nire eskuetan iausi bear zenduan» esanaz, gorpuren gaiñean oin bat ipiñirik Ozinbeltzekoak dedar egin eban menditarren zantzoa» Ed. Auñamendi, 2n. argitalpena, II-170..

OLAZAR'tar Martin ek

BILDU R

*Arkaitz gaiñean ago,
zorioneko lagun,
mundura begira;
zer aduzko indarrek
samindu deuk biotza
il gogorkerira...?*

*Zer jazo dok lurrean...
Jainkoari eskua
kendu nai izateko...?
Gizona, naiko al az,
bizitza arazoak,
zuzen, argitzeko...?*

*Baiña zer dok burruka au...?
Gizonak elkar joten,
zer jabilzak ilten...?
Zeren bildurra daukak,
lagun minberatua,
odolak lertuten?*

*Leoien ao zarrak
ez najok bildurtuten
mendi barrenian;
gizonaren ezpatak
ez najok ikaratzzen
espetxe aurrian.*

*Egille Almentsuak,
ni sortu ninduanak
jamostek bildurra;
betiko bizitza
maitasunez betea,
neuk galdu bearra.*

PAULIN

ORBELAK LEZ

Aizeak daroazan orbelak lez
zirimolka, basaz zipriztinduak
ta, bertanbera jausiak lurrean,
bizidunen oinkada, ostikopez.

Tamalgarria da bai ikustea
ainbesterañoko itsutasunez
inguratzen gaitun gizartea
ain dollor ta zeken, garraztasunez.

Gogo zitalezko gogortasunez
biotzak dagoz deungaki izoztuak,
erakutsiz euren errenkurea
gozotasunik barik, etsipenduak.

Azurretarraño dago sartua
munduaren ustel-sunda, kiratsa;
ibaiak, lats, errekak ta bizitza
bera be, errorraño ondatua,

Gure biotzak ez, ez dira maitezkoz
bizi. Ez dira ederrik apaintzen
ta, alai, udabarritar soiñekoz,
ez dira usaintsu loraburutzen.

Negute edurtu izotzgarriaren
kopeta zimurtuaren betoskoz
antzeratzen dira, illun baltzaren
egun gautuen asarredun margoz.

Zer, zer gertatzen da gure errian,
betiko eztabada, gutarreen,
zer gertatzen da zer gure artean
gorrotogarrizko lorrinkerian?

Erauntsi gaingoratuaren antzera
erasotzen dauku bai mendebalak.
Baiña, nundik norakoak ete dira
orren buru, erro eta magalak?

Muniategi-tar Sabin

Euskalerritik Mundura Begira

LI BANO

Euzkadi bezala erri txikia da Libano: 10.399 Kilometro (gure Naparroa'k 10.421 ba dauz) eta 3 milloi biztanle. Erri txikia baiña naasia, Euzkadi baiña naasiagoa oraindik, sail askotan zatitua bait dago bertako jendea: Erdia baiña geixego Kristaua, eta gaiñerakoa maomatarra. Baiña bi sail auek ere baikoitza iru sail txikagoetan zatituak dagoz. Kristauak, batzuek, geienak, Marondarrak dira, beste oraindik, Greziar-Katolikoak. Azkeneko auek eta aurrenekoak, Aitasantuaren esanerakoak; erdikoak, Greziar-Ortodoxoak, Erroma'ko Eleizatik bereiziak, zismatikuak.

Maometarrak ere iru zati egiñik dagoz: Xunitak, Xiitak, eta Drusiarrek.

* * *

Naiz orrenbeste ezberdintasun izan, Libano'k aurkitu eban pakean bizitzeko era. Demokrazirik bikañenean, erriak aukeratzeko eban Lege-Batzarra (Parlamentua), baiña lain-ari edo proportziño batean: «Sei bosterako» lain-arian: Sei kristau, bost maomatar.

Lege-Batzar orrek, Errepublikako Lendakaria aukeratzeko eban. Kristaua beti: Marondarra, eta Landakari onek izendatzen eban Jaurlaritzako edo Gobernu Buruzagia, maomatarra beti, Xunnitarra, eta onek osatzen eban, «sei bosterako» lain aria kontuan artuaz, bere Jaurlaritza.

Era ortan, alderdi aietako Laterririk aberatsena izatera iritxi zan Libano. «Arabi-lurraldeetako Suiza» esten yakon.

Baiña etorri ziran Libano'ra palestindarrak —600.000? Bai beintzat milloi erdi bat baiña geiago—, eta berealaxe birrindu zan Libano'ko oreka edo ekilibriua; palestindar aiek danak maometarrak bait ziran.

Orregaitik, aien aurka jeiki ziran berealaxe kristauak, eta baita tiroka asi ere.

Borrokarako, gudarozte bat eratu eben Kristau auek, 5.000 gizonekoa, baiña ondo gertua eta ondo izkilluz jantzia. Auen aurka, maometarrik borrokalarrienak beste gudarozte bat bildu eben 6.000 gizonekin. Kristauea baiña aundixeagoa, baiña ez ain

ondo ezia, entrenatua, eta izkilluztua edo armatua. Izan da azkeneko urte auetan odol-ixurtzerik, eta ondamenik naiko Libano'n!

Zer egiten eben ordea Libano'ko gudarozteak eta Libano'ko Jaurlaritzak? Ezer ere ez. Ezin bait eikeen egin ere. Libano'ko gudarozteak 21.600 gizon besterik ez dauz; eta kristau eta maometarren artean zatiturik dagoalako, ezin izan dau ezer egin. Ezta, gudarozte orren laguntzarik gabe Jaurlaritzak ere. Gaiñera, palestindarrek berak 19.000'ko beren gudarozte bat ba-eben Libano'n, gudan ederki oitua eta Libano'koa baiña milla aldiz obeto izkillutua. Palestindarrak agindu dabe Libano'n. Ez bertako Jaurlaritzak, ez bertako gudarozteak, ezin eikeen zerbait egin palestindarren baimenik gabe. Orregaitik, azkenean, auen aurka iarri dira Libano'ko maometarrik geienak ere.

* * *

Gauzak ala, Libano'ko jenderik geienak ez dau begi okerrez ikusi israelarren eraso. Len Malbine-tako auzian edo probleman lez, gaizki jokatu dau Libano'ko auzi otan ere Espaini'ko telebistak (irratikus-kak); eta baita izparringiek eta irratiak ere. Palestindarren arazoa eta Libano'ko arazoa ez bait dira arazo bera, zearo ezberdiñak baizik. Libano ez da israeldarrek zanpatua izan. Palestindarrek zanpatu zuten Libano, eta orain libandarrek gaizkale edo salbatzalle lez begiratzen dautse Israel'ko gurariei.

Israeldarren aldean eta palestindarren aurka ipiñi ziran berealaxe tiroka kristauek eta, maometarren artean, xitak. Libano'ko gudaroztea ere, naiz tiroka asi ez, Israel'en aide dago (agintariek batez ere, agintari geienak kristauak bait dira); erriko jende-artean ere, maometarrik geienak, gaur, palestindarrak Libanotik ateratzea nai dabe.

Argia da beraz Libano'ko auziaren askabidea, soluziñoa. Libano, libandarrentzat. Irten egin bear dabe Palestindarrek. Ez da Libano'n pakerik izango andik Palestindarrak irtetzen ez ba'dira. Ez zan len ere Jordani'n pakerik izan Palestindarrak andik irten ez ziran arte.

Ta... tPalestindarrekin zer egin? Beste arazo bat da ori: Palestindarren arazoa. Beste egun batean aztertuko dogun arazoa.

IBAIZABAL

(Asteroko orri albistaria: 1902-1903)

«Gure euskera maiteak albistari edo periodiku bakartxo bat ez eukiteak minduten izan dauz euskeldun zintzo askoren biotzak. Eta minduteko gauzea da, izan be, Europa guztiko izkuntzatan albistariak ikustea, geu bakarrik gareala ainbakoak».

Samintasuna ta lotsaria erakusten eben berba onek aurrean zituela, asi zan agertzen an, gizaldi onen asieran, 1902garren urtean, euskerazko albistari bat, asterokoa: IBAIZABAL izenekoa. Ez zan lenengoa: urte bi lenago ixildu-bearra izan eban EUSKALZALE» zanaren jarraitzaille etorren. Azkue abadeak eta beronen lagunak luze eritxi eutsen, luzeegi, urte biko ixilaldiari. Eta orra non datozen barriro lengo kemen eta asmoak dabezala... Al daben giñoan, euskereari eutsi, euskerea bizkortu, garbitu, apaindu, aberastu, zabaldu: orixe egiteko datoz. Azkue bera, bere Iztegi andia aterateko buruauste eta neketan sartuta dabil. Eta lagun bat artu dau ordezeko, eta albistari barriaren zuzendari: Kirikiño Mañariarra, Bilboko Eskola nagusian, Institutoan, euskera irakasteko ordezeko jarrita daukana.

EUSKERA UTSEZKO LENENGOKO ALBISTARIAK

EUSKALZALE eta IBAIZABAL euskera utsez agertu izan diran lenengoko Albistariak dira. Lenago, bein, ZER onen orrietan esan genduana ez da bete betean egia. Zer genduan orduan? Bidasoaz andiko euskaldunak izan doguzala onetan aurrelari. Egia da, bai, an agertu zala lenengoz euskera utsezko aldizkeri bat, Urtekaria, baiña erderatik artua, eta euskeraratua, eta Mixioetako barri emoteko bakarrik. Egia da an euki ebela euskaldunak albistari bat, asterokoa, oraingo

HERRIA astekariaren ama edo amamatzat jo geinkena; baiña ez etorren, oraingoa ez datorren lez, euskera utsean; beti ekarren frantzes apur bat, gaurko HERRIAK be ekarten dauan lez. EUSKALZALE eta IBAIZABAL-ek euskera utsa erabili eben. Orretan, ez Lapurdi, Bizkaia izan da aurrelari.

BIZKAIERAZ ETA GIPUZKERAZ

IBAIZABAL (EUSKALZALE be bai) Bizkaian sortua da, baiña ez Bizkaiko euskaldunentzat bakarrik, Gipuzkoaldekoentzat bebei. Lenengo orrian esaten de ori argi eta garbi. Bizkaiko nai Gipuzkoako idazleentzak zabalik daukaz ateak. Bidasoaz andikoen lanik agertzen badau, emendiko euskerara aldatuta ekarriko ditu...

IDAZLEEK

Idazle nausi biak, albistariaren buru eta zuzendari egiten dabenak, Bustintza (Kirikiño) eta Azkue dira. Lanik geiena bion eskuetan dago, batez be Kirikiñoren eskuetan. Eta biak, bakotzak bere ezizena darabille: Kirikiñok BLOA (Bustintza, Lasuen, Olaso, Agirre), eta Azkuek EKETA (Ni-neu, edo erdal-dunen MENDA itza ren kidea). Onen urrendun idazle-pilloa dator: Bizkaitik, Zamarripa, Gorgonio Erreterria, D. Agirre, Arrese, Beitia, Enbeitia anaiak (Orduko Pedro eta Manuel), eta abar. Gipuzkoatik, Urruzuno, Eme-terio Arrese, Elizetxea, B. Etxegarai eta abar.

BERARIZKO AITAMENA

Idazleotatik aparteko aitamena egingo neuke nik birentzat: Arrese Beitia eta Manu Ebeitarentzat. Arrese Beitiaien aitamena zegaitik? Arana Goiri ii zanean argiratu eban

olerkia dala-ta. IBAIZABAL-ek ez eban eriotz ori ixilpean itxi. Kirikiñoren lumatik bere naibage sentikor barru-barrutikoa agertu eban, eta illak etorkizunean Euskalerrian gero ta izen andiagoa irabaziko ebala iragarri.

Arrese Beitia, orduan, ez zan gelditu bere lira aberatsari soiñurik beteenak atera barik. «Amatau da gure Eguzkia», olerki orren titulak naikoe diño. Olerki ori, eta beste bat, Arana Goiri goratzeko beste aldizkari baten agertua, iñork ez ditu Arrese Beitia orren liburuetan argitaratu, eta ez dira ezagutzen.

Manu Enbeitak be, Kepa anaiaren ospeak illunpean itxi dauan arren, badau bere nortasuna, bai olerkari-maillan, eta bai albistari edo gazetalari-maillan be. Bere ardura-pean egon zan luzaroan EUZKADI egunkariaren euskal-atala. Orrialde osoa ateraten eban euskeraz, eta gaiñera, lenengo orrialdean, eguneko jakingarri andienen laburpena. Gaurko gezetalariok ez dabe oraindiño orrenbeste lortu. Enbeitatar Ibon eta abar ezinez badabe zer ikasi. Lanerako kemenean batez be, IBAIZABAL-en orrietan asi eta 1936an il zan arteiño.

ALBISTEAK

Albistari bat zetako da? Albisteak, barriak emoteko. IBAIZABAL zoli asi zan orretan. Euskalerriko eta Euskalerritik kanpoko barriak ekazan asiera baten. Gero Euskalerrikoak baiño ez. Eta eurok be urritxo. Nok bialdu? Or egoan untzea, Errenderiarrak ziran zolienak. Eta bein bizkaieraz bialdu eutsen bizkaitarrai euren anai-agurra.

IRAKURGAIK

Euskaldunai euskeraz irakurteko zaletasuna sartzeko asmoaz, tartean-tartean, zatika aterata, irakurgai luzetxoak be baetozan albistari onetan, teatro-lanak eta abar. Azkuek

oso maite eban Bergara aldeko idazle bat: Antero Apaolaza (*Patxiko Txerren*, Truebaren nobelatxo bat euskera jator atsegingarrian euskeraz ipiñi ebana). Eta or sartu eban, albistariaren orrietan.

Bertan agertu ziran **J.** Artolaren teatro-lan bi, gitxienez: *Bixente*, eta *Xabiroia*,

II

Urte biko bizia izan eban IBAIZABAL-ek. Bigarren urtea beteta il zan.

BLOA(Kirikiño) Mañarira joan zan gabon-jaiak anai-arreben artean igaroten, eta EKETA-ri, Azkueri itxi eutsan ilbarria emoteko arazoa. Itxura baten ez zan ilten. Ezkuz aldatu bakarrik.II, bai, baiña urrengo urtean Durangoko Elosuren eskuetan eta iru abadere arduapean bizi barritan biztuteko. Baina urrango urtean ez zan IBAIZABAL-ik agertu. Zer jazo zan? Nok jakin? Andik aurrera Azkuek asti geiago izango dau, bere iztegilana Frantzian aurrera eroateko. Beste iru abadeak nortzuk ziran? Bearbada, sortzi urte geroago «**Jaungoiko-Z**ale« ateraten asi ziranak? Or doa itaun au, iñok argitu eta erantzun zeatzik emon gura baleu.

ETA BIZTU?

Ez zan, ez, albistari au barriro agertu, ez zan berbiztu urrengo urtean, 1904garrenekoan agindu ebenez. Baiña zelanbaiteko berbizkundera oraintxe, gure egonotan jatorko. ZER onen orrietan barri au emon orduko, euskaldun irakurzaleak albistari zar ori irakurri eta ezagutzeko erea izango dau. SENDOA argitaletxeari esker. Argitaletxe onek, IBAIZABAL eta EUSKALZALE, biak dakaz gaur argitara, eta euskaldun guztien eskuetan ipinten ditu. Emen esanak eta geiago an ikusiko ditu iralurleak. Eta gaurko gazetalariak euskalgazetalaritzaren asikiñak, asikin apaltxoak, or dabez.

L. AKESOLO

SALMUAK

XXIV , ALMUA (euskerazko 5'garrena)

Salmu onek, Erruki zakidaz (Miserere) salmua dakarsku gogora.

¹Dei egiten dautsut, Jaungoikoa: entzun nagizu arren! Nire eskuak zeure bizitoki santurantz luzatzen dodaz. ²Zabaldu zure entzumena eta entzun nire erregua; ez egizu baztatu nire eskaria.

³Onik atara egizu nire arimea, ez egizu ondatu; ez daitea billoizik geratu dongen aurrean. ⁴Urrundu egizuz nigandik gaiztakeria saritzen dabenak, Egiaren Auzi ebazle, Jaungoikoa!

⁵Ez nagizu epaitu nire pekatuen negurrira bizidunik bat bera be ez da zuzena zure aurrean-eta.

⁶Irakatsi nagizu, Jaungoikoa, zure legean, irakatsi egidazuz zure erabagiak.

⁷Orrela, entzun egingo dabez askok zure egingtzak, eta atzerriak goratu egingo zaitue.

⁸Gomuta zaituz nitzaz, ez zaituz nitzaz aaztu eta ez nagizu esturetan jarri.

⁹Urrundu egizuz nigandik nire gaztetako pekatuak. Ez izan gogoan nire utsak. Garbitu nigan ezpan gaiztoak. Ez zaituz sumindu nire aurka. ¹⁰Kendu nigandik "arein zusterak, ez daitezala zildu nigan arein orriak. Zu goragarria zara, Jaungoikoa

¹¹Orregaitik, nire erregua entzuna da zure zurrean. Nori geiago eskatuko dautsat laguntza, emon daistan?

¹²Adan'en semeai, bearbada?; nondik atarako dabe areik aal-izatea? Nire ustea Jaungoikoagan dago!

¹³Dei egin neutsan Jaungoikoari eta Arek erantzun egin eustan. Osatu egin eban nire biotz ausia.

¹⁴Makurtu egin neban nire burua, loak artu nenduan [...], atsekabetuta nengoan.

KEREXETA

XXVI SALMUA (euskerazko 6'garrena)

Salmu onek izadia ta beronen Egille guztiz aaltsua goratzen dauz.

¹Aundia ta santua da Jaungoikoa)
Santu-santua gizaldiz-gizaldi.
Aren aurrean ²aundi-izatea doa.
Aren atzean, ur aundiaren zaratotsa,
Ontasunak eta errukiak inguratzen dabe,
Egia, ³Auzia ta Zuzentasuna dira
Aren aulkiaren ondopea.
Argia illunpeetatik banandurik
sortu eban egunsentia,
⁴bere biotzeko jakintzaz.

Aingeruak, ori ikusi ebenean,
pozez bete ziran,
eurak ez ekiena ikusierazo eutsen-eta
⁵Mendiak bizidun guztientzako
alez eta janariz apaindu ebazan.
⁶Bedeinkatua bere indarraz
lurrari bizia emoten dautsan A,
bere aal-izateaz mundua sendotzen dauana!
Bere adimenaz zabaldu ebazan zeruak [...].
Atarazo egin dau 'aizea beronen kobetatik

KEREXETA

XXVII SALMUA (euskerazko 7'garrena)

Salmu onetan judarren egutegiko ja'ak aitatzen dira, Jauretzearen garbikunde ta eskintzakoak izan ezik, Dabid'i ezarten yakozan izen-buruak —jakituna, argia, profeta doaidun osoa—, Mesias aitatzen dabe, Mesias' r dagokioz.

DABID, JESE'REN SEMEA

¹Dabid, Jese'ren semea, jakituna zan, eguzkiaren argia lako argia zan, jakintsu ²sakona ta osoa bere bide guztietan Jaungoikoaren eta gizonen aurrean, ³eta Jaungoikoak espiritu argitua emon eutsan.

⁴Iru milla ta seireun salmu idatzi ebazan, baita

gorapen-abestiak be, egun baktxean erre-opari betikorako altara-aurrean abesteko. ⁵Urteko egun guztietarako, irureun eta irurogei ta lau idatzi ebazan. ⁶Zapatuetako eskintzarako, berrogei ta amabi abesti. ⁷Ilbarrietako eskintzarako, batzarretako egun baktxerako eta oben-ordezko egunerako, ogei ta amar. ⁸Abesti guztiak izan ziran berak bururuatuak; laureun eta berrogei ta sei izan ziran guztiz. ⁹Atsekabetuen alde ereskiñen bidez lagunduak izateko abestiak, lau soillik izan ziran. Lau milla ta berrogei ta amar guztiz.

¹⁰Gauza guztiok, Gorengoaren aurrean emona izan yakon profeta-doiak eraginda esan ebazan.

KEREXETA

SENDIA TA ELIZA (V1)

Jaungoikoa da sendiaren egille ta jabe: beraz Berak agindu bear dau sendian eta bertan bizi diranak be bere aginduak eta legeak bete bear dabez naizta sarritan legeok ez bizan atsegin.

Eliza Jaungoikoaren ordezkari da. Elizari itxi eutsezan Jesukristok bere eskubideak.

Bere ardurapean itxi eban erlijijño-zabalkundea. Bere ardurapean sinismena, sakramentuak.

Bai ete dau Elizak eskubiderik sendian? Sendia Jaungoikoak egiña izanik Elizak eskubide osoa dau beregan gogo-gaietan.

Iñork ezin ukatu leikeo Elizari eskubide au. Ezkontza da sendiaren oiñarri. Munduaren asieratik irarri zan gizon guztientzat. Alan be gizonak nasaitu egin ebazan ezkontza-lokarriak. Laidotu bere iturria.

Jesukristok sakramentu egin eban ezkontza ta sakramentu egitean Elizaren babesean geratu zan.

A rrezkero ezkontza esker-banatzalle da. Ezkontza gaur itunben eta alkarte bat da. Gizona ta emakumea bat egiten dira alkarte onen bidez.

Ezkontza sakramentu dan aldetik iatorkoz Elizari bere eskubideak. Elizak bakarrik emon leikez legeak ezkontzari buruz. Elizak bakarrik esan noz dan legezko ta noiz ez. Elizak bakarrik barrendu leike ezkontzaren mamia.

Au olan-da ba'dau Elizak zergaitik agindu sendian. Ez dau zergaitik sarturik etxebarruko gauzetan. Sendi-buru danak ebatzi bear dauz gauzok.

Elizak bere eskubideak daukoz ba sendian eta ez da lurrean esku-bideok kentzeko almenik. Zoriontsuak Elizaren irakaskintzak.-deiak, legeak eta aolkuak ontzat artu ta betetzen dabezan sendiak.

EUSKAL SENDIA (VII)

Sendia Jaungoikoak egiña da. Sendi bakar bat zan asieran. Goroago geitu egin zan mundu-zear zabaldurik.

Sendi-mota asko dago an-or zabalduta ta bananduta. Euzkal sendia bat. Bere jatorria illunpetan. Illunpetan orobat gora-berak, ioan-etorriak, bere egiteak, bere bizitza, bere edestia-kondaira.

Azkenez emen, gaur EUZKA-LERRI izenagaz ezagutzen dan lurraldean jarri eban bere kabia, bere bizitegian Eta emen jarraitzen dau. Ementxe bizi izan da ta ementxe bizi da.

Gora-bera aundiak izan dauz azkeneko mendetan beste ainbestek eta ainbestek bezala. A rerio asko ta bildurgarriak agertu izan iakoz bere bidean. Mirariz ba'da be oraindik zutik da, oraindik bizi da. Noiz arte?

Aldaketa aundia izan dau Euzkalsendiak batez be azkeneko aldi oneitan.

Gure arbasoak berbiztuko ba'litzakez ezagutuko ete laukie?

A zkeneko urteotan izan diran barrizteak eta aldaketak beragan be sartu dira. Barrizteok asko aldatu dabe bere izakera, bere nortasuna

Izan be euzkal sendiak bere izakera, bere nortasuna izan dau beti, Izakera bakanan Ugarte lez agertu izan da beste sendien artean.

Gaur ainbeste ez. Bein kristautasuna artu ebanetik zintzoki jokatatu dau bide ortarik. Jainko-zale agertu izan da. Bere lurralde—zatiatan jasotako elizak eta beste ainbat sinismen-agerkaiak argi agertzen dabe au.

*Orobat mundu zabal-zear len eta orain izan diran apaizak, pralleak, monjak, Ainbat Gotzai emon dautsoz Elizari eten barik. Gaur be lenengo maillan agertzen da. * * **

Euzkal sendia sinismen-gordeleku izan da. Gordeleku leiala. Mundu osoak aitortu izan dau au. Gaur be euzkal sendia Katolito da, Jainko-zale len aña ez ba'da be. Euzkal sendiak nortasuna izan dau. Nortasun onek beste

sendietatik berezkatu izan dau. Izkuntza berezia dauko: EUZKERA. Bera bezin zaarra, bera bezin illunpetan galtzen dana.

* * *

Euzkal sendiaren orma-barruan bizi izan da ainbat gizalditan. Mirariz. Zoritxarrez bere semenen itxikeriz eta arrotzen indarrak uxatu egin dabe euzkalsendi askotatik edo geienetatik. Burruka gogorestuan darabil gaur egunean be. Euzkeragaz batera ilko da euzkal sendia. Euzkararik barik ez da euzkal sendirik.

Eutsi, eutsi euzkaldunak euzkerari. Jainkoak Berak emondakoa dozu. Zaindu egizu bitxirik jorie-na, maitagarriena, kutunena lez. Euzkera galduta zure izakera galtzen dozu. Euzkera bedi zure sendi-barruko izkuntza, berbeta. Euzkera irakatsi zure umeai. Zaindu, zaindu, euzkeldun anai-arreba, EUZKERA.

Sinismenarekin eta Euzkerarekin zorionsua izango da euzkal sendia.

GOIRIA

LANAREN BILLA

Olagu mutil gaztea ez zan lan-zalea, baiña go-seak eraginda-edo lanaren billa ebillan.

Bein baten, piztitegi edo zoolojiko baten emoten ebela lana entzun eban eta an doa, zuzen, arduradunagana.

—Ba-daukazue nitzat zeozelako lanik?

—Lana bai, baiña ez dakit ba zutzako lakoa izango dan. Sama-luzea (jirafea) il jaku atzo eta zeu aundia be ba-zara ta sama-luze jantzita or pizti-artean ibilli nai ba'dozu,.. jenteak piztitzat artuko zaitu.

— Bai, baiña... leoiak eta tigreak edo katamotzak eta orreik igarriko dauste eta iruntsi egingo nabe!

—Bai zera! Zu ez ikaratu. Orreik etxureari begiratzan dautsoe ta ez dautzue ezer egingo.

Artu eban ba gure Olagu'k bere lan barria, naiz ta ugazabak esandakoa oso-osoan sinistu ez. Bildur ikaragarria eutsen leoi, katamotz eta olakoai.

Jantzi eban sama-luzearen narrua, bere buruaren gaiñetik samea ondo lotuta eukala eta joan zan piztitegira bildur-ikaraz dar-dar.



Eta esan eta egin, or datorko katamotza bere begi gorriak eta bere agin zorrotzak ondo agirian eukazala.

— Ai! Galdu naz! —egin eban oiu Olagu gizajoak.

Katamotza ondo-ondora etorri jakonean bere larritasuna ikusirik, biotzez berba egin eta bizkaiera garbiz auxe esan eutson:

— Olagu! Zuri zenbat ordaintzen dautzue?

25.^a ERANTZUNA



Goñi

EZKERRETIK ESKUIRA

1. Deudor. Negar.
2. Niño. Cerca, proximo. Delgado.
3. Rastra, narraia.
4. Secreto, confidencia. Visitar.
6. Hacer. Turbio. Suelo, bajo.
7. Yo. Nosotros.
8. Concebido una idea.
9. Bestia, ganado. Yo.
10. Aprender. Espanto.
12. Fundición, calor fuerte. Friolero.
13. Palabra, vocablo.
14. A ver si. Altura, cima. donde.

GOITIK BERA

1. Irracional.
2. Usted.
3. Ahi. No.
4. Lengua, idioma. Buey.
5. Indica posicion. Reloj.
6. Agua. sufijo.

7. Ingenuo. Entero.
8. Tuyo. Tijeras.
9. Comprender. Calabaza.
10. Volante. Subir.
11. Alli. Teléfono.
12. Vete de aqui.
13. Cria.
14. Riqueza.

EUSKERAZALEAK BATUAREN BATU - EZIÑAK

Gaiztasuna: Ondarroa ta Hondarrabi, biak dira sustrai batekoak, baiña alkartu-eziñak.

Iparraldean: Hatxeaz eta hatxerik gabe: Aizkora.
Bakoitzak nai dauan erara idatzi, esan geinkio orreri.
Emengoak ostera, hatxeaz plin-plinik agertzen dausku.

* * =

Behera-harria: Hatxeaz biak eta hatxe bi bear leukeezan itzai, bat bera be ez, ez dau-
tsee ipinten.

Haal, barriz, itz txikirriña, aurrean hatxeaz datorkigu.
Zelako batua dogu ba BATU arraio au!

* * =

Aranburu'az Haranburu egin dauan gizaundia, or zear dabilkigu, ez dakit nongo
zearretan.

Aranberri'az Haranberri ta Gereño'az Gereino Amatiño'az Amatino, zergaitik ez?

* * =

Izenaren atzizkien aurrean kakotxa (') betirako kendu bear dogula esan eta esan diar-
due.

Jon eta Jone. Jonek eta Jonek gutun bana igorri dauste. Zein da ba Jon eta zein Jone
igorri daustana? Ona emen: Jon'ek eta Jone'k. Argi dogu kakotxaz.

* * =

Aintzin baten, aintzin-aldi baten, eta orduan izan zan ereari loturik, ugutzatu ezkeru,
ikaturik-edo, Koldobika'ra aldatu zan. Euskerearen batu-aldian barriz, aingeruaren, deiaz, ba-
Gaztaroan, eta bizarra baltziturik be bai, Luis'eaz jarraiturik, txerrenak leznaz
ikaturikedo, Koldobika'ra aldatu zan. Euskerearen batu-aldian barriz, aingeruaren, deiaz, ba-
rriro be Luis'era joan Villa txit aundia.

LANDAJUELA'tar A.'k

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria
Bizkaieraz
Gipuzkoeraz
Erderaz
BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA
Bizkaieraz
Gipuzkoeraz
munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...



Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha., BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupié en nosotros

Zenue nrotea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**